

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2021eko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren diru bilketa

Nik, Igor Medina Isasa, Barrundiako Udaleko alkateak, ondokoa

JAKINARAZTEN DUT:

2021eko urriaren 20tik aurrera ordaindu ahal izango direla araututako epean 2021eko ondoko zergak:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2021eko urriaren 20tik 2021eko abenduaren 20ra arte.

B) Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 21etik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, premiamendu murriztukoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa banku bidez helbideratuta ez daukatenean Udalak Kutxabanken eta Laboral Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egingo dute ordainketa.

III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Barrundiako Udalarari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ozaetan, 2021eko irailaren 29an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA